


INGURUMEN-HEZKUNTZA IRUÑA

JASANGARRITASUNAREN ESKOLA


NEGUA 2022







Tel.: 948 14 98 04 / 948 42 09 84

www.educacionambiental.pamplona.es
educacionambiental@pamplona.es

 [ingurumenhezkuntza.museoa](#)

 [IHMuseoalruna](#)

 [@ingurumenhezkuntzairuna](#)

Goizetan, asteartetik ostiralera, 10:00-13:00.

Arratsaldeetan, asteartetik ostegunera, 18:00-20:00.

ADI eguberrietako ordutegia:

Urtarrilaren 4an, goizeko ordutegia baizik ez,
 10:00etatik 13:00etara. Urtarrilak 5, itxita.

Errotazarko k., z.g. - 31014 Iruña

HIRIA ETA BERE EREMUAK

BIRNATURALIZATZEA

Hiriak eta bertako biztanleok naturari begiratu behar diogu, ez bakarrik ingurune atseginago bat lortzeko, baita klima-aldaketaren aurka borrokatzeko eta bere eraginei aurre egiteko ere. Gure hiriak erresilienteagoak izatea behar du.

Hiriak birnaturalizatzeak airearen eta uraren kutsadura murrizten du, zarata gutxitzen du, eta babesa ematen du uholde, lehorte eta bero-boladen aurrean, baita beste hamaika onura ere. Baina, batez ere, gainontzeko ekosistemarekin konektatzen gaitu, garen horrekin berriz lotzen gaitu eta onura emozionalak eta bizi-kalitatea ematen dizkigu.

Hiria berriz pentsatzera gonbidatzen zaitugu.

Jarduera guztiak osasun-arauekin bat eginen dira.

Gure hedabideak (webgunea, sare sozialak, buletin elektronikoa) erabiltzea gomendatzen dizuegu, gerta daitezkeen aldaketen berri izateko.

Jarduera guztiak doan dira parte-hartzaileentzat, baina diru publikoaren gastua eragiten dute.

Mesedez, egiaztatu libre zaudetela izena eman baino lehen.

Izan ere, bajek eragiten ahal dute itxarote-zerrendan daudenek ezin izatea hutsik geratutako lekuak bete.

Aurkibidea

Herritarrak abian	07-10	Ingurumenari buruzko film laburren zikloa	17-18
Hitzaldi-solasaldiak	11	Erakusketak	19-20
Lantegiak, ikastaroak eta bangoak	12-15	Truke-azoka txikiak	21-22
Dokumental zikloa	16	Museoa zeureganatu	23

Urtarrila

Al	As	Az	Og	Or	Lr	Ig
					1	2
3	4 **Jostailuen azoka txikia. Erak	5 ITXITA Erak	6 Erak	7 Erak	8	9
10	11 Erak	12 Erak	13 Konpondu zure bizikleta - Bizibxokoa Erak	14 Erak	15	16
17	18 Erak	19 * Krispetak eta TikTtok Klima-ekintzarako lantaldea Erak	20 Eta zuk zer aire arnasten duzu? Herritarren zientzia laborategia Erak	21 Erak	22	23
24	25 Erak	26 * Krispetak eta TikTtok Erak	27 Erak	28 Erak	29	30
31						

Erak IX. Natura, Nafarroan erakusketa. Urtarrilaren 4tik otsailaren 18ra.

*Jarduera hau EZ da Museoaan egiten. Barruan kontsultatu.

**Urtarrilaren 4an, museoa goizez bakarrik egonen da irekita.

Otsaila

Al	As	Az	Og	Or	Lr	Ig
	1 * Fruta-arbola hazidunak inautesteko lantegia Erak	2 * Krispetak eta TikTtok Klima-ekintzarako lantaldea Erak	3 Herritarren zientzia laborategia: Nolako airea arnasten dugun jakiteko lehenbiziko urratsak Erak	4 Dokumental irabazlea Erak	5	6
7	8 * Krispetak eta TikTtok Erak	9 *Fruta-arbola hazidunak inautesteko lantegia Erak	10 Familiarteko lantegia: Gure firma bir-naturalizatu (gaztelaniaz) Erak	11 Konpondu zure bizikleta - Bizibxokoa Erak	12	13
14	15 * Krispetak eta TikTtok Erak	16 Klima-ekintzarako lantaldea Erak	17 Erak	18 Erak	19	20
21 *#LabMeCrazy dokumentalen zikloa Erak	22 *Dokumentalen zikloa Bisita gidatua: Boria erakusketa (2021) Erak	23 *#LabMeCrazy dokumentalen zikloa Erak	24 *#LabMeCrazy dokumentalen zikloa Dokumental irabazlea Erak	25 Erak	26	27
28						

Erak IX. Natura, Nafarroan erakusketa. Urtarrilaren 4tik otsailaren 18ra. Boria (2021). Otsailaren 21etik martxoaren 31ra.

*Jarduera hau EZ da Museoaan egiten. Barruan kontsultatu.

Martxoa

Al	As	Az	Og	Or	Lr	Ig
	1	2	3	4	5	6
7	8	9 * Krispetak eta TikTok Klima-ekintzarako lantaldea	10 Konpondu zure bizikleta - Bizibxokoa	11	12	13
	Erak	Erak	Erak	Erak		
14	15 Neguko sendabelarrak	16 Krispetak eta TikTok Familiarteko lan-egia: Gure hiria biñ-naturalizatu (euskaraz)	17 Mahai-ingurua: Mugikortasun Jasangarria	18	19	20
	Erak	Erak	Erak	Erak		
21	22	23 * Krispetak eta TikTok Klima-ekintzarako lantaldea	24	25	26	27
	Erak	Erak	Erak	Erak		
28	29 Dirurik gabeko azoka txikia	30 * Krispetak eta TikTok Dirurik gabeko azoka txikia	31 Dirurik gabeko azoka txikia	1 Dirurik gabeko azoka txikia	2	3
	Erak	Erak	Erak			

Erak Boria (2021). Otsailaren 21etik martxoaren 31ra.

***Jarduera hau EZ da Museoaan egiten. Barruan kontsultatu.**

HERRITARRAK ABIAN

Hiriek kontsumitzen dituzte baliabideen eta energiaren parterik handienak, eta hondakin gehienak sortzen dituzte. Hiriak dira, beraz, arazoaren (ingurumen-krisia) zati handi bat dira, eta bertako biztanleok irtenbidearen parte izan behar dugu. Horretaz jabetu, pentsatzeko gelditu, norantz jo jakin, eta abian jarri besterik ez dugu egin behar.

Asmo handiko helburu horrekin herritarrak ekinean jartzeko bi ekimen proposatzen dizkizuegu. Klima-aldaketa eta gure hiriko atmosferaren kutsadurari aurre egiteko bi prozesu. Krisia aukera bihur dakigun eta hausnarketa ekinga bihur dadin.



KLIMA-EKINTZARAKO LANTALDEA



Ingurumen Hezkuntzako Lantaldea. Iruñeko Udala

Urtarriletik apirilera, 18:00etatik 20:00etara: Urtarrilak

19, otsailak 2 eta 16, marxoak 9 eta 23, apirilak 6 eta 27

TOKIA Ingurumen Hezkuntzako Museoa

Trantsizio ekologikoa erronka saihestezina da. Gero eta argiago dugu. Udalak abian jarri du jada Energia Trantsizio eta Klima Aldaketarako Udala Estrategia baina beharrezkoa da herritarrek ere aldaketa horretara batzea. Alabaina, batzuetan ez dakigu nondik hasi.

Talde honek ahalduntze-hazi bat izan nahi du, jakin dezagun nola izan partaide klima-aldaketari irtenbide kolektiboa emateko. Hori guztia energia, kontsumo, elikadura, aisialdi eta beste arlo batzuetako ekintza zehatzen bidez landuko da.

Izen-ematea, aurrez

Abenduaren 13tik aurrera. 010 edo 948 42 01 00 telefonoetan (mugikorretik edo Iruñeaz kanpotik deituz gero). Izen-emate bakarra saio guztietarako.

ETA ZUK NOLAKO AIREA ARNASTEN DUZU? HERRITARRAREN ZIENTZIA LABORATEGIA ETA AIREAREN KALITATEA



Iker Aranjuelo

Urtarrilak 20, osteguna. 19:00.

TOKIA Ingurumen Hezkuntzako Museoa

Ikerketa ugari jaso dute trafikoak airearen kalitatean eragina duela. Ondorioz, egiaztatu ahal izan da pertsonen osasunean duen eragina arnas aparatuko gaitzetan (asma, etab.)

Saio honetan herritarren ekintzari esker trafikoak hirien aire kalitatean duen inpaktuaren azalpena erakutsiko dugu. Eta kutsadura atmosferikoari buruzko hainbat ezagutza erakutsiko ditugu.

Iker Aranjuelo ikerlaria da Ikerketa Zientifikoaren Kontseilu Nagusiko Agrobioteknologia Institutuan (IdAB-CSIC).

Izen-ematea, aurrez

Urtarrilaren 10etik aurrera. 010 edo 948 42 01 00 telefonoetan (mugikorretik edo Iruñeaz kanpotik deituz gero).

HERRITARREN ZIENTZIA LABORATEGIA ETA AIREAREN KALITATEA: ZER ARNASTEN DUGUN JAKITEKO LEHEN URRATSAK



Iker Aranjuelo

Otsailak 3, osteguna, 19:00.

TOKIA Ingurumen Hezkuntzako Museoa

Airearen kutsaduraren parametroak kontrolatzeko ekipo profesionalak erabili ohi dira, datuak zehaztasun handiarekin jasotzen dituztenak, eta datuok profesionalak aztertzen dituzte. Gure herritarren zientzia laborategian hori elkarlanean egitea proposatzen dugu, geure etxeetatik. Zientzialari bihurtuko gara, airearen ezaugarriak ezagutzeko teknika berriak erabilita. Saioan landareak dituzten lorontziak banatuko dira, eta parte-hartzaile bakoitzak balkoi/leiuo batean paratu beharko ditu, eta 3 hilabetez zaindu. Ikerketan parte hartzeko eta landareak zaintzeko argibideak emanen dira.

Denbora amaituta, landareak jasoko dira eta landareetan metal astunetik eta beste mineralik ote dagoen aztertuko da.

Iker Aranjuelo ikerlaria da Ikerketa Zientifikoen Kontseilu Nagusiko Agrobioteknologia Institutuan (IdAB-CSIC).

Izen-ematea, aurrez

Urtarrilaren 18tik aurrera. 010 edo 948 42 01 00 telefonoetan (mugikorretik edo Iruñeaz kanpotik deituz gero).

MUGIKORTASUN JASANGARRIA; ABIAN DAUDEN ELKARLANERAKO IDEIAK



SOM Mobilitat, Karkarcar, Kudea Go

Martxoak 17, osteguna. 19:00.

TOKIA Ingurumen Hezkuntzako Museoa

Mugikortasun jasangarria ingurunean, osasunean eta norbanakoaren bizitza kalitatean ahalik eta eragin negatibo txikiak sortzen dituen da.

Mahai-inguru honetan abian dauden benetako 3 proiektu ezagutuko ditugu, mugikortasun eredu kolaboratibo eta jasangarriagoetan oinarrituak.

Izen-ematea, aurrez

Martxoaren 3tik aurrera. 010 edo 948 42 01 00 telefonoetan (mugikorretik edo Iruñeaz kanpotik deituz gero).

BIZITXOKOA - KONPONDU ZURE BIZIKLETA



Ateraldi eta lantegi guztiak doan dira. 16 urtetik gorakoendako dira, eta aurrez eman behar da izena.

Juanjo Iriarte, konponketetan aditua

Ostegunak: Urtarrilak 13, otsailak 10

eta martxoak 10. 18:00-20:00.

TOKIA Ingurumen Hezkuntzako Museoa

Bizikleten konponketari buruzko ezagutzak partekatzeko eta gure bizikleta prest jartzen dugun bitartean edo besteei laguntzen diegun bitartean ongi pasatzeko sortu da gune hau.

Juanjo Iriarte konponketetan aditua egonen da bertaratzen direnei laguntza eskeiniz.

Izen-ematea, aurrez

Egun hauetatik aurrera: urtarrilak 4 (urtarrilerako) / otsailak 1 (otsailerako) / martxoak 1 (martxorako). 010 edo 948 42 01 00 telefonoetan (mugikorretik edo Iruñeaz kanpotik deituz gero).

FRUTA-ARBOLA HAZIDUNAK INAUSTEKO LANTEGIA



Joseba Etxarte

Otsailak 1, asteartea. 16:00 - 18:00.

Otsailak 8, asteartea. 16:00 - 18:00.

TOKIA Olatzxipi lursaila Topalekua: Uharte BHI. Olatz Txipi errep. 16.

Negua da gure fruta-arbolak inausteko garaia. Lantegi honetan fruta-arbola hazidunak mantzentzeko inausketaren funtsezko oinarriak landuko dira, eta praktikan jarriko.

Nori zuzendua: jendeari, oro har.

Joseba Etxarte inautaria da, eta lantegia emateko arduraduna.

Izen-ematea, aurrez

Urtarrilaren 18tik aurrera. 010 edo 948 42 01 00 (Iruñeaz kanpotik deituz gero) telefonoetara deituz.

“GURE INGURUKO NEGUKO SENDABELARRAK” LANTEGIA



Josean Vidaurre

Urtarrilak 15, osteguna. 16:30 – 18:30

TOKIA Ingurumen Hezkuntzako Museoa

Lantegi honetan txango labur bat egingen da inguruetara, gertuko ingurumarietan aurki ditzakegun landareak ezagutzeko. Gero, ikasgelara itzulitakoan, horien ezaugarri sendagarriak eta erabilera terapeutikoak hartuko dira hizpide, eta zalantza guztiei erantzunen zaie.

Josean Vidaurre nutrizionista eta fitoterapiari aditua da.

Izen-ematea, aurrez

Martxoaren 1etik aurrera. 010 edo 948 42 01 00 (Iruñeaz kanpotik deituz gero) telefonoetara deituz.

FAMILIARTEKO LANTEGIA: GURE HIRIA BIR-NATURALIZATU



Maushaus

Otsailak 9, 17:30etik 19:00etara

GAZTELANIAZ

Martxoak 16, 17:30etik 19:00etara

EUSKARAZ

TOKIA Ingurumen Hezkuntzako Museoa

Iruña jasangarritasunaren ikuspegitik birpentsatzea planteatzen dugu familiendako jarduera batzuen bidez, non modu dibertigarrian hausnartuko baitugu pertsonak nola bizi garen hirian eta sentsibilizatuko baikara hiria birnaturalizatu eta horren aukerei buruz.

Hirigintza eta jasangarritasuna tresna onak dira bizi garen mundua atzeman, diagnostikatu eta eraldatzeko. Bere mekanismoez baliatuz, arazoak konpon ditzakegu, eta diseinuaren bidez, balizko irtenbideak irudika daitezke.

Mauhaus hezkuntza artistiko-teknikoko proiektu bat da, zeinetan lantegien bidez maitasun-harremanak ezartzen baitira arkitekturekin eta hiriaren hizkuntza aurkitzen baita.

Izen-ematea, aurrez

GAZTELANIAZ: urtarrilaren 26tik aurrera. EUSKARAZ: martxoaren 2tik aurrera. 010 edo 948 42 01 00 telefonoetan (mugikorretik edo Iruñeaz kanpotik deituz gero).

#LABMECRAZY! SCIENCE FILM FESTIVAL



Nafarroako Unibertsitateko Zientzietako Museoa

Otsailaren 21etik 24ra, 19:00etan

TOKIA Nafarroako Unibertsitateko Zientzietako Museoa

#LabMeCrazy! jaialdiaren hirugarren ediziora gonbidatzen zaituztegu. Nafarroako Unibertsitateko Zientzietako Museoaren ekimena, Iruñeko Udalak babestua.

#LabMeCrazy! Science Film Festivalek jakin-gosea, sormena eta berrikuntza sustatzen ditu, zehaztasuna eta grina ahanzi gabe, eta apustu egiten du aktiboki jardutearen alde eta naturarekiko, gizakiarekiko eta pertsonen ontasuna bilatzearekiko konpromisoaren alde.

Ostegunak 24ean, dokumental irabazlea ezagutuko dugu.

Museo de Ciencias Universidad de Navarra



Sarrerak jaialdiak kudeatuko ditu.



Negu honetan herritar aktiboak sortzeko aliantzak bilatuko ditugu eta Coworkidsekin elkartuko gara Iruñeko auzoetan nerabeendako ingurumenari buruzko film laburren ziklo bat eskaintzeko.

COWORKIDSEK guneak eraikitzen ditu Iruñeko auzo guztietan haur eta nerabeen gaitasunak garatzeko eta oinarritzko eskubideak babesteko. Aisialdi, kirol, kultura, ingurumen-heziketa edo artearen bidez, erabakimena eta parte-hartzeko gaitasun kritikoa eta analitikoak garatzeko egiten du lan.

Zikloak 3 saio izanen ditu, eta ingurumenari buruzko film laburrak proiektatu ondoren eztabaida egon da.



TIKTOK ETA KRISPETAK



Ingurumen Hezkuntzako Lantaldea eta COWorkids

18:00etatik 19:30era

NOIZ ETA NON

- Urtarrilak 19 eta 26 eta otsailak 2, Milagrosako zentro komunitarioan
- Otsailak 8, 15 eta 22, Iturrama ikastetxe publikoan
- Martxoak 9, 16 eta 23, Txantrea zentro komunitarioan
- Martxoak 30, apirilak 6 eta 13, Mendillorriko Civioxean

Mini-zinema eta krispeta arratsaldeak planeta aldatzeko. Eozine jaialdiko hainbat ediziotatik hautatutako ingurumenari buruzko 3 film laburreko saioren proiektzioa nerabeendako. Ingurumena gaitzat duen film laburren eta animazioaren mundura hurbilduko gara, eztabaida eta hausnarketa eginen dugu beti ikuspegi kritiko, adi eta arduratsuekin, ingurumenaren arazoak ulertu eta konponbidean nola parte har dezakegun ulertzen laguntzeko. Gainera, jasangarritasunaren influentziak bihurtuko gara Tik-Tokerako erronka batekin.

Aurrez izena eman behar da:

coworkids@pamplona.es helbidean edo 948420584 telefonoan.

IX. NATURA NAFARROAN ERAKUSKETA



Gorosti Natur Zientzietako elkarte

Urtarrilaren 4tik otsailaren 18ra.

TOKIA Ingurumen Hezkuntzako Museoa

Erakusketak Gorosti Natur Elkartek antolatuta eta Iruñerriko Mankomunitateak babesten duen IX. Natura, Nafarroan Argazki Lehiaketatik aukeratutako argazkiekin osatu da.

BORIA (2021)



Arkaitz Saiz eta Raquel Meyers

Otsailaren 21etik martxoaren 31era.

Inaugurazioa: otsailak 22, asteartea, 18:30ean, bisita gidatua erakusketara.

TOKIA Ingurumen Hezkuntzako Museoa

Badago boria (behelainoa Cartagenako hizkeran) moduko bat hiru hamarkada baino gehiagoz Itsaso Txikian gertatzen ari dena ikustea eragozten duena.

Nahiz eta Itsaso Txikia babesteko irudi eta lege asko dauden, boriak desagertarazi dituela dirudi. Itsaso Txikiari buruz izan ditugun hainbat elkarrizketatan, bada beti errepikatzen den faktore bat: diru-gosea. Itsas Txikiko boriak aurkezten dizkizuegu.

Izen-ematea, aurrez, inauguraziorako

Otsailaren 8tik aurrera. 010 edo 948 42 01 00 telefonoetan (mugikorretik edo Iruñeaz kanpotik deituz gero).

MERCADILLOS

JOSTAILUAK TRUKATZEKO AZOKA TXIKIA



Haurrei bereziki eskaintako gunea, senideekin etorriko dira lagunduta.

Urtarrilak 4, osteguna. 11:30etik 13:00etara

Merkatuaren xedea da jostailuen trukea sustatzea, eta horrela, berrerabilpena bultzatzea, kontsumo-alternatiba bat eskaintzea eta jostailuen bizitza luzatzea.

Haurrek dagoeneko erabiltzen ez dituzten jostailuak ekar ditzakete, betiere egoera onean badaude -edozein jolas, liburu, ipuin, puzzle eta abar izan daiteke-; eta horiek trukatzeko ahalko dituzte beste neska-mutil batzuek eramandako objektuekin. Haurrek -senideek lagunduta- erabakiko dute nola egin trukea; hala ere, Ingurumen Hezkuntzako taldea arduratuko da txikiak zeregin horretan gidatzeaz.

DIRURIK GABEKO TRUKE-AZOKA TXIKIA



TOKIA: Ingurumen Hezkuntzako Museoa

Martxoaren 29tik apirilaren 1era.

Erostearen ordez alternatiba bat eskaintzen da, berrerabilpena sustatuz. Horrela ingurumena zaintzen laguntzen da, lehengaiak eta energia aurrezten direlako. Azokan denetarik aurki daiteke: arropa, zapatak, beira-aleak, liburuak, jostailuak, etab. Parte-hartzaileek egoera onean dauden baina erabiltzen ez dituzten gauzak ekartzen dituzte, besteendako interesgarriak izanen direlakoan. Aste bakoitzean sei gauza trukatu ditzakete gehienez ere, betiere antzeko balioa duten objektuekin. Trukea Ingurumen Hezkuntzako Lantaldeak gainbegiratu du, era orekatuan eta ordenatuan egiten dela bermatzeko.

educacionambiental@pamplona.es

